



Egitaraua

8. edizioa

Toki garapen

astea

2012ko apirilaren 23tik 27ra

Ermuko Udalak antolatua
Toki Garapeneko Alorra



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

innpulso 
Red de ciudades de
Ciencia e Innovación
Ermua 2011-2014

APIRILAK 23

Zientzia eta teknologia aplikatua

- 9:45h-10:00h** Harrera eta dokumentazio banaketa.
- 10:00h-10:15h** Patxi López Lehendakari Jaunaren eskutik enpresa eraikin berriaren inaugurazioa. Ermuko Alkatea den Carlos Totorikaren eskutik toki garapen astearean aurkezpena.
- 10:15h-10:30h** Luis Cueto jauna, jardunaldiaren aurkezpena.
- 10:30h-11:30h** Fco. Javier Mateos eta Ignacio López jaunak. Berrikuntzarako tresnak: "Exaptazioa eta dibertsitate".
- 11:30h-11:45h** Kaferako etenaldia.
- 11:45h-13:00h** Jakintza blokeak: bioakustika/ozeanografia, bioteknologia, osasuna eta nanomaterialak.
- 13:00h-13:45h** Zeharkako muga ezagutzak.
- 13:45h-14:00h** Ondorioak Luis Cueto jaunaren eskutik.
- 14:00h** Itxiera ekitaldia, Ermuko Alkate Carlos Totorika jaunaren eskutik.
- 16:00h-18:00h** Picocriket tailerrak haurrentzat.

Zer da exaptazioa?

Biologian, Exaptazio esaten zaio baldintza jakin batzuetan egokitzapen gisako bilakara duen egitura bati, egitura hori, behin finkatu ondoren, beste xede berri baterako, oso maiz hasierako "xede" edo helburuarekin inolako zerikusirik ez duen baterako, erabiltzen eta hobetzen hasten denean.

➤ **E+D-ak** ideien eremuan soluzio eta aplikazio berriak eta ezin susmatuzkoak bilatzeko, sortzeko eta deskribatzeko aukera ematen du.

Hizlariak

FRANCISCO JAVIER MATEOS MAROTO JN.

"Aleen" enpresako zuzendaria. Enpresa hau Jakintzaren Ingeniaritza eta Adimen Teknologikora bideratuta dago. E&D sorkuntza prozesua kontzeptualizatu du.

MICHEL ANDRÉ JN.

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko (UPC) irakaslea eta Aplikazio Bioakustikoen Laborategiko (LAB) zuzendaria. Bere ikerlanak itsas ingurunekeko poluzio akustikoa kontrolatzeko teknologia akustikoen garapenean biltzen dira.

ALFONSO GONZÁLEZ JN.

Administrazio Zuzenbidean doktorea eta Kudeaketa eta Unibertsitate Politikako masterra UNESCO Katedran. CAMen Ikerkuntzako zuzendariorde nagusia eta EOlren zuzendari nagusia izan da. Gaur egun Madrilgo Erkidegoko Azpiegitura eta Garraio kontseilariordearen aholkularia da.

JOSÉ ANTONIO LORENTE GÓRRIZ JN.

Ingeniari tekniko industrial, CEO Andarea, S.A.n. Honetan E&D prozesua aplikatu zuten.

ANA MARÍA BENITO MORALEJA AND.

CSICen zientzia ikerlaria Zaragozako Karbokimika Institutuaren Prozesu Kimiko eta Nanoteknologia Departamentuan.

LUIS CUETO JN.

Zuzenbidean lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Estatuaren administrazio zibileko goi-mailako kidegoko funtzionarioa 1987az geroztik. Enpresa Berrikuntzaren Sustapeneko zuzendariorde nagusia Teknologiarren Transferentzia eta Enpresa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa).

RAMÓN MAS PONS JN.

Ingeniari industrial, Parc de la Salut Fundazioaren zuzendari zientifikoa, BIOCATen proiektu estrategikoen unitateko zuzendari ohia, eta gaur egun Kataluniako gobernuaren Agència d'Informació, Avaluació i Qualitat en Salut (AIAQS) delakoaren zuzendaria.

JORGE BARRERO JN.

Bioenpresen espainiar Elkartearen presidentziaren albokoa; lehenago Zientzia eta Berrikuntza Ministerioan izan zen, Cristina Garmendia ministroaren zuzendari gisa. Biokimikaria da, eta Zientzia, Teknologia eta Gizarte Ikerketetan masterra Salamancako Unibertsitatean.

IGNACIO LÓPEZ FORNIES JN.

Industri Antolaketako ingeniaria, Zara gozako Unibertsitateko irakaslea diseinu metodologietan, diseinu eta bionika arloko sorkuntzan, azterketa eta berrikuntzan eta ekodiseinuan.

APIRILAK 24

ETEen Nazioartekotzea

- 16:15h-16:45h** Jordi Lorenzo Gorrotxategi jn., Ermuko udaleko teknikaria: Coopera proiektuaren emaitzen aurkezpena.
- 16:45h-17:15h** David Fernández jn., SPRI-ko Nazioartekotze Zuzendaria: Euskal ETEak nazioartekotzeko laguntza zerbitzuak.
- 17:15h-17:45h** Rocco Caira jn.: Irlandako ohorezko kontsula Bilbon: Arrakastaz esportatzea. Kontratu idatzirik ez izatearen akatsa.
- 17:45h-18:00h** Galderak.
- 18:00h-18:30h** "Juan Torres" proiektuen aurkezpena, ekintzaileen eskutik.

Globalizazioa

Ekonomia hain globalizatu batean, enpresa txiki batentzako merkatu posibleak da-goeneko ez dira mugatzen tradizionaliki iristen zen lurralde mugetara. Orain, enpre-saren internazionalizazioa funtsezko elementua da lehiakortasuna hobetzeko, eta kontuan hartu behar da, hainbat arrisku badituen arren.

➤ Jardunaldi honetan nazioar-tekotzeko moduei eta lor daitezkeen onurei buruz hitz egingo da, baina baita horrek dakartzan arriskuei buruz ere.

Hizlariak

DAVID FERNÁNDEZ JN.

David Fernández Terreros jn. Deusto-ESTE Unibertsitateko Enpresen Zuzendaritzarako Unibertsitate Masterra (MBA) ikasi eta gero, Merkataritza eta Marketing espezialitatea, Nazioarteko Merkataritzan espezializatu zen École de Hautes Études Commerciales (EDHEC - Lille).

Ingeles Filologian Lizentziatua da eta Zuzenbide ikasketak burutu ditu UNED-en. 1998an SPRI-ko Nazioarteko Departamentuan hasi zen lanean, bere lana Brasileko Ordezkaritza Bulegoa martxan jartzea izan zen eta 5 urte eman zituen zuzendari bezela. Bilbora bueltan Asia Eremuko Buru izatearen ardura hartu zuen bere gain eta gaur egun SPRI-ko Nazioartekotze Zuzendaria da.

ROCCO CAIRA JN.

Irlandako ohorezko kontsula da Bilbon. Dublingo Trinity Collegen zuzenbidean lizentziatua da. Abokatu bezela lan egiten du. Law Society of Ireland eta Law Society of England and Waleseko kide da. Deustuko Unibertsitate Komertzialean irakaslea da eta nazioarteko negoziozioko irakaslea da Bilboko Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolan.

Idea

"Juan Torres" enpresa-proiektuen lehiaketa. Munda mugiarazten dutenak ez dira makinak, ideiak baizik.
Victor Hugo.



APIRILAK 25

Eduki digitalen euskal industria

- 16:00h-16:15h** Jardunaldiaren aurkezpena. Gorka Areitioaurtena jn., Ermuko udaleko teknikaria.
- 16:15h-16:45h** Itziar Mena and., EIKEN-eko gerentea: Ikus-entzunezko euskal sektorea, gorantz dijoan sektorea.
- 16:45h-17:15h** Ignacio Otalora jn., Europa-Bilbao Digipen Teknologia Institutuko zuzendaria: Bideojokoak, aukerak eskaintzen dituen sektorea?.
- 17:15h-17:45h** José Luis Roncero Gorrochategui jn., Ubiqa-ko bazkide fundatzailea: komunikazio sozialerako eduki digitalak.
- 17:45h-18:00h** Galderak.
- 18:00h** Ermuko zuntz-sarearen ahalmenaren erakustaldia.

Hizlariak

ITZIAR MENA AND.

Komunikazio Zientzietan lizentziatua da EHU. Albistegien zuzendaria izan zen ETBn lau urtez, EHUko errektorearen Kabineteko zuzendari 1996 eta 2000 bitartean, eta Bilbao Metropoli-30eko zuzendari laguntzailea (2000-2003). 2004ko urriaz geroztik, Euskadiko Ikus-entzunezko Eiken klusterreko zuzendaria da.

IGNACIO OTALORA JN.

Ekonomi eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da Deustuko Unibertsitate Komertzialean. Bizak enpresaren Erosketa zuzendariaren alboko gisa hasi zuen bere ibilbidea, eta gero, 9 urtez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko auditorea izan zen. Geroago, 10 urtez, Bilboko Merkataritza Ganberako Azterketa Zerbitzuko zuzendaria izan zen. 2010eko urteaz geroztik, DigiPen Bilboko zuzendari exekutiboa da.

JOSÉ LUIS RONCERO JN.

Aditua da komunikazioaren teknologien arloan, eta dagoeneko oso bide luzea du egina ikus-entzunezko produkzioaren munduan. Gaur egun, Ubiqa enpresaren bazkide fundatzaile eta administratzailea da; enpresa hau ikus-entzunezko produkzioan aritzen da, eta edukiak eta informazioa eta komunikazio kanalak diseinatzeko eta kudeatzeko dituen guztietako euskarri digitaletan.

Ikus-entzunezko sektorea,

aukerak eskaintzen dituen sektorea?.



APIRILAK 26

Pertsonentzako arreta: aukera berriak

- 16:15h-16:30h** Merche González de Celis and. Ermuko udaleko Alor Soziokulturalaren zuzendaria: Jardunaldiaren aurkezpena.
- 16:30h-17:00h** Fernando Fantova jn., Etorbizi / Berrikuntza Soziosanitariorako Euskal Fundazioaren zuzendaria: "Menpekotasunaren eta kronikotasunaren prebentzioa eta arreta: jarduera ekonomikoa eta gizarte ongizatea".
- 17:00h-18:30h** Esperientzien aurkezpena: "Bizilekua eta minusbaliotasuna: enplegua sortzeko aukerak".
- Minusbaliotasun moten arabera etxeen egoitza. Eider Fernández Zapiain and., terapeuta okupazionala, Aita Menni ospitalea.
 - Matz Erreka-ren esperientzia minusbaliotasunaren munduan. Jabi Odriozola jn., Matz Erreka.
 - Etorkizuneko zaintzailea, enplegu-gune bat: beharrezko trebetasun eta gaitasunak. Jose Ignacio Quemada jn., Garuneko Kalteen zerbitzuko burua, Aita Menni ospitalea.
- 18:30h** Galderak.

Irigarritasuna

Geroz eta gehiago bizi garen eta minusbaliotasunek ezgaitzen ez gaituzten gaur egungo gizarte honetan, pertsonak etxean bertan zaintzeko teknologia eta teknika berriek aukera zabala eskaintzen dute, bai zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonentzat bai zerbitzu horiek sortzen dituzten pertsona eta erakundeentzat.

➤ Egun honetako hitzaldiek etxeko arreta zerbitzuak baloratu dituzte, eta etxean arreta eskaintzeko aukerak azalduko dizkigute.

Hizlariak

FERNANDO FANTOVA JN.

Fernando Fantova soziologian doktorea, gizarte hezitzailea eta psikologian lizentziatua da. Minusbaliotasuna duten pertsonekin boluntario lana egin du 1979az geroztik, eta profesionalki, berriz, 1986tik aurrera. Borondatezko lankidea izan zen Ekuadorraren eta aholkulari lana egin du Europan eta Latinoamerikan, gizarte politikaren eta kudeaketa publikoaren arloetan. Hamar bat libururen egilea da, eta gaur egun Etorbiziko zuzendaria da.

JOSÉ IGNACIO QUEMADA DOKTOREAK

Medikuntza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta psikiatriako espezialitatea egin zuen Erresuma Batuan. Zientzia master bat egin zuen Cambridgeko Unibertsitatean, eta bere doktore tesia Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu zuen. 1992az geroztik Garuneko Kaltea zerbitzua garatzeko lanean ari da Aita Menni ospitalean.

JABI ODRIOZOLA JN.

Ingeniari gipuzkoarra da, minusbaliotasunaren arloko laguntza espezializatuaren

esparruan aditua da. Minusbaliotasuna duen erabiltzailearen beharrei egokituak banakako produktuak sortzen ditu. Lan horretan Adom Autonomia-ren ingeniari gisa aritzen da, ONCE Euskadi Solidarioak saria jaso zuen pertsona fisikoaren kategorian, minusbaliotasuna duten pertsonentzako egokitzapenak sortzeagatik, eta Aita Menni ospitaleak bere instalazioetan duen etxebizitza egokituaren diseinatzailea da; etxebizitza horren helburua hartutako kalte zerebrala (HKZ) duten eta errehabilitazio fasea amaitu duten gaixoei etxera itzultzeko laguntza eskaintzea delarik.

EIDER FERNÁNDEZ ZAPIAINEK AND.

Salamanca Unibertsitatean trebatu zuen terapeuta okupazional gisa, eta esparru horretan garatu du bere ibilbide profesional guztia, Mapfre Quavita, Sanitas eta Matía Fundazioarentzat lan eginez; gaur egun Aita Menni ospitalean ari da, Garuneko Kaltea zerbitzuan. Eiderrek dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretara bideratu du bere prestakuntza.

APIRILAK 27

Ekitea bizimodu gisa

- 9:30h-10:00h** Ekintzaileentzako udal zerbitzuen aurkezpena. Rosalia Herrera and., Ermuko udaleko Toki Garapene-ko Alorreko Zuzendaria.
- 10:00h-11:00h** Sormen eta ekintzailetza tailerra, bertaratzen direnei zuzendua, Izinker-en eskutik.
- 11:00h-11:30h** Kaferako etenaldia.
- 11:30h-12:30h** Julian lantzi jn.: ideia bat baldin baduzu, azken-azkeneraino ekin hori lortzeko.
- 12:30h-13:00h** "Juan Torres" sarien banaketa.
- 13:00h-13:45h** 2012ko TGA-ren amana era ekitaldia musikaz lagunduta teknologia enpresen zentroko terrazan.

Idea bat baldin baduzu, azken-azkeneraino ekin hori lortzeko

2001az geroztik, Julian lantzi jn. Euskal Telebistako oso aurpegi ezaguna da. Hainbat programa aurkeztu ditu zenbait telebistatan, baina zalantzarik gabe ETBn lortu du ospea euskal ikusleen artean. Agertu den programen artean, 'Basetxea', 'Bergia gose', 'Sorginen Laratza', 'La flecha amarilla', 'El conquistador del fin del mundo', jai programa bereziak, etab. daude.

➤ 2007ko martxoan estatu mailako telebistarako jauzia egin zuen, Cuatro kateko 'Brainiac' programaren gidari gisa. Geroago, 2008ko udan, 'El muro infernal' aurkeztu zuen La Sexta telebista-katean.

Arte erakusketa

"Alfa Arte"-ren eskutik.

ALFA | arte |

